

NOLA SORTU IPUIN BATEN ILUSTRAZIOAK, AITZIBER ALONSO

Irakaslea:

Aitziber Alonso, ilustratzailea.



Deskribapena eta helburuak:

Lehenengo saioa.

Hasteko Aitziber Alonsok album ilustratuei buruz hitz egingo du ikasleekin. Album batzuk erakutsiko dizkie, estilo ezberdinetakoak, eta horien sortze prozesua nolakoa den azalduko die: ilustratzaileak testua jasotzen duen momentutik abiatuta, zirriborroak egin eta marrazten bukatu arte.

Ondoren, zirriborroen bidez, pertsonaiak landuko dituzte: nolakoak diren fisikoki.

Gero paisaiak landuko dituzte. Paisaia ezberdinak nola marraztu erakutsi ostean, pertsonaiak nola kokatu azalduko die.

Bigarren saioa.

Parte-hartzaile bakoitzak gustuko duen liburu baten pasarte bat ekarriko du. Pasarte hori haur literaturako obra batena nahiz helduen literaturako obra batena izan daiteke.

Testua orrialdeka banatu ondoren, esaten duena aztertzen hasiko dira ilustratu ahal izateko.

Hirugarren saioa.

Testua irudikatzeko, ilustrazioak egin eta horiek margotzeki ekingo diote ikasleek. Beti ere, koloreen eta testuren koherentzia bat bilatuz.

DONOSTIA KULTURA – KULTUR EKINTZA / ACCIÓN CULTURAL

Konstituzio plaza, 1 – 20003 Donostia / San Sebastián

T. (0034) 943 481 151 E. kulturekintza@donostia.eus

www.donostiakultura.eus

Data-Ordua:

2021ko azaroaren 6, 13 eta 20: 11:00 – 13:00.

Hizkuntza:

Euskara.

Oharrak:

Ikasle guztiek beharrezko neurriak hartu beharko dituzte COVID-19 gaixotasuna hedatzeko arriskurik ez sortzeko, bai eta arrisku horiekiko esposizioa bera saihesteko ere. Horregatik, Donostia Kulturaren Kontingentzia planak agindutako segurtasu eta higiene neurriak jasotzen dituen protokoloa errespetatu beharko da.

Matrikularen zenbatekoan ez da ikastaroko materiala sartzen, eta ikastaroan zehar behar izan daitezkeen musika-tresnak edo bestelako materialak ikastaroko ikasleek emango dituzte. Ikastaro batzuetan, hasteko oinarrizko material bat jarri ahal izango du Donostia Kulturak.